

BAPOREA



BILDUMA

María Menéndez-Ponte

Pupi eta cowboyen abentura

Irudiak: Javier Andrada



ikasmina



*Liburu hau argitaratzeko, Kultura Ministerioko Liburuaren,
Artxiboen eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusiak
dirulaguntza eman du, liburutegi publikoetan maileguan
utz dadin, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen
37.2 artikuluan zehaztutakoari jarraiki.*

Argitalpen-zuzendaritza: Elsa Aguiar
Koordinatzailea: Paloma Muñia
Hizkuntza-aholkularitza: Ramon Olasagasti (Bakun S.L.)

© testuarena: María Menéndez-Ponte, 2008
© irudiena: Javier Andrada, 2008
© Ikasmina argitaletxea, 2011
Huertas de la Villa, 9
48007 Bilbo (Bizkaia)
www.grupo-sm.com

BEZEROENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA
Tel.: 902 121 323
Faxa: 902 241 222
Helbide elektronikoa: clientes@grupo-sm.com

ISBN: 978-84-9855-162-4
Lege-gordailua: M-26646-2011
EBn inprimatua / *Printed in EU*

Titularren baimenik gabe, debekatuta dago lan hau birsortzea, banatzea, publikoki hedatzea edota eraldatzea, Legeak aurreikusitako salbuespenetan izan ezik. Jo CEDROa (Eskubide Erreprografikoen Espainiako Zentroa, www.cedro.org) lan honen zatiren bat fotokopiatzeko edo eskaneatzeko beharra baduzu.

*Nire lehengusina Carmeni,
zineman eta krispetak jaten
hainbeste arratsaldetan
bidelagun izandakoari.*

Pupi, Natxo, Rosy eta bikiak
Kokeren etxera joan dira jolastera.

Pupi harrituta geratu da
Kokek zer jostailu pila dituen
ikusita; izan ere, munduko
haurrik mimatuena da Koke.





Supermerkatura joaten denean,
amak litxarreriak erosten dizkio,
edo *gusanitoen* poltsa bat,
kasketarik harrapa ez dezan.



Parkera joaten denean,
jostailu-dendaren parean geratzen da,
eta amonak jostailu berri bat erosten dio
aldiri, kasketarik harrapa ez dezan.



Eta kromoen bilduma bat egiten hasten bada, bi egun igarotzerako osatzen du, izebak kromoen zorro pila oparitzen dizkiolako, kasketarik harrapa ez dezan.





Kokek ezingo luke jasan beste ume batek
berak baino lehen osatzea bilduma.

Kokeren jostailuen artean, zango artikulatudun munstro moduko batek erakarri du Pupiren arreta. Jostailura hurbildu da Pupi, botoi bat sakatu du eta... Zas!, bala bat jaurti du panpinak.

–Begira, Natxo, *pistosau* bat!
–oihukatu du Pupik, pozarren.



